

Hirukotearen abenturak

Bazen behin herri txiki bat. Bertan hiru ume bizi ziren. Hiru umeak Pedro Patxi eta Pepe, lagunminak ziren. Beraien ikaskideek baztertu egiten zituzten.

Pepe ilehori motzduna, argala eta begi beltzduna zen. Patxik ile beltza motz kizkurduna eta begi urdinak zituen. Pedro ile beltza, begi berdeak eta betaurrekoduna zen.

Egun batean hirukotea futboleak jokatzen ari zela Pedrok baloia urrutiko baso batera bota zuen, Pepe eta Patxik hau esan zioten:

- Baina zer egin duzu Pedro!!
- Ez dakit!! -erantzun zion Pedrok oihuka.
- Bueno ez da axola, orain goazen baloi bila -esan zuen Patxik

Hirukotea baloi bila joan ziren korrika batean. Bat-batean oihuka hau esan zuen:

- Itxaron!!
- Bale, itxaroten zaitugu -esan zuten biek.
- Pepe, Patxi etorri! begira nolako oin-markak! -esan zuen harrituta Pedrok.
- Zuek, noren oin-markak direla uste duzue?-galdetu zuen Pepek.
- Animalia batenak direla uste duzue?-galdetu zuen berriro Pepek.
- Ez, ez dira animali baten oin-markak, monstro baten oin markak dira- esan zuen Patxik beldurrez.
- Bai zera! -esan zuten biek batera beldurrez.
- Gure ikaskideei galdetuko diegu? -galdetu zuen Patxik.
- Ez! bestela poliziari dietuko diete gure ikaskideek -esan zuen Pepek.
- Baina zergatik ez Pepe? -galdetu zuen Pedrok.
- Monstro bat izaten bada diru asko lortu dezakegulako -esan zuen Pedrok.
- Ondo da goazen -esan zuten Patxi eta Pedro.

Horren ostean, hirukoteak lasai-lasai oin markak segitu zituzten. Ordubetera bat-batean lehoi bat agertu zitzaien eta hirukoteak batera hau esan zuten:

- Aaaaaaa!!! Lehoiaa!!!
- Orain zer egingo dugu? -galdetu zuen Pepek.
- Nik badakit, denok zuhaitzera igo behar dugu -esan zuen Patxik azkar.

Zuhaitzean zeudela Pepek nahi gabe eskua poltsikoan sartu eta multi-tresna bat zuela konturatu zenean, azkar-azkar bere lagunei hau esan zien:

- Multi-tresna bat daukat.
- Eta zer egingo dugu horrekin? -galdetu zuen Pedrok.
- Labana daukanez gero labana bota eta lehoia hiltzen saiatuko naiz -esan zuen Pepek urduri.
- Oso ideia ona!! -esan zuen Patxik animatzeko asmoz.
-

Pepek labana ondo apuntatu eta botatzera zihoala zarata arraro bat entzun eta huts egin zuen. Orduan segundu batzuk isilik gelditu ziren, horren bezain azkar Patxik momentu hori apurtzeko eta gero ere bizirik irtetzeko hau esan zuen:

- Nik zorroz kilo bat daukat, zorroz kiloarekin zerbait egin genezake??.
- Baina, zer? -galdetu zuten Pedrok eta Pepek batera eta interesez salbatzeko aukera bakarra zen eta.

- A badakit! egin genezakeena da zuhaitzen adarrak zorroztu eta lehoia hiltzen saiatu, oraingoan aukera asko ditugu lortzeko -erantzun zuen Pedrok beldur pixka batekin.
- Oso ideia ona -esan zuen Pepek.

Hori egin zuten eta azkenean 2 ordu pasa ondoren hil zuten lehoia. Abentura horren ostean horrelako hiru abentura zail pasa zituzten hirurak beldurrez eta ozta-ozta irten ziren bizirik.

Aste bat pasa ondoren, azkenean, heldu ziren, kobazulo misterioitsu batera. Kobazuloaren aurrean geratu ziren hirukotea geldirik. Hirukoteak elkarri begiratu, segundo batzuk itxaron eta kobazulora sartu egin ziren. Derrepente monstro bat agertu eta hirukotea oihuka hasi ziren, halako batean monstroak hau esan zien:

- Mesedez ez beldurtu, badakit monstro bat naizela baina ez beldurtu.
- Bale, lasaitu egingo gara, baina galdera batzuk egingo dizugu -esan zuen Patxik.
- Zergatik zara hain jatorra, nola duzu izena? -esan zuen jarraian Patxik.
- Ni Juan naiz, ni jatorra naiz bakarrik egotea gustatzen ez zaidalako -erantzun zuen Juanek.
- Zuen laguna izan naiteke? -galdetu zuen jarraian Juanek.
- Bai, eta beste kontutxo bat, pasako diguzu baloia -galdetu zion Patxik.

Hotik aurrera lagunak egin ziren monstroa eta hirukotea. Monstroa beti urrunetik etorri beharren hirukoteak etxe bat egin zion hirukotea monstroarai bizi ziren etxetik gertu, horrela egun bakoitzean berarekin jokatu ahal izango zuten, eta hala bazan eta ez bazan sar dadila hirukotearen herriko plazan.

Joseba